

# Katedraleko nekropolia, “cum laude” tesi baterako oinarria

Santa Maria Katedralaren zaharberritze-lanak hainbat doktorego-tesi egiteko oinarri izan dira. Hilabete honetan iritsi da azkena Fundaziora, Nerea García Ventadesen “Bizitza eta heriotza Gasteizen, XII. mendetik XVIII. mendera. Santa Maria tenpluko nekropoliaren azterketa bioantropologiatik, paleopatologiatik eta paleogenetikatik”.

Santa Maria elizan berreskuratutako hezuren azterketan oinarritutako lan horren bi-

dez, XII. mendetik XVIII. mendera bitarteko Gasteizko biztanleriaren egitura biologiko eta sozialaren funtsezko alderdiak ezagutu ahal izan dira, nekropoli horren testuinguru historiko, geografiko eta kronologikoa kon-tuan hartuta.

Nazioarteko tesi gisa katalogatutako lanak “Bikain Cum Laude” kalifikazioa jaso du EHUREn aldetik. Zorionak Nereari bere lan bikainagatik eta Gasteizko muinoko antzinako biztanleen ezagutzari egindako ekarpenagatik.



## Kultur industriren etorkizuna, eztabaidagai

Fundazioa, kultura- eta sormen-enpresen berrikuntza-ekosistemen ikuspegi integrala ematea helburua duen bigarren CONTRAST bileran egon zen. Katedrala Eusko Jaurlaritzak RIS3 espezializazio adimenduneko Europako estrategia berriaren barruan sortutako GT2 I+G+B lantaldearen parte da.

Topaketa horretan hainbat kontinentetako pertsonak hartu zuten parte, eta eskual-

deko berrikuntza-testuinguruak eta kasu zehatzak aztertu ziren.

Horrela, adibide bakoitza ezaugarritzen duten elementuak identifika daitezke, berrikuntzako jardunbide egokien azterketa konparatiboa egiteko eta etorkizunean kultura- eta sormen-industrietan berrikuntza monitorizatzea ahalbidetuko duten adierazle- den diseinuan aurrera egiteko.



### Elizpeak hotzari aurre egiten


**dio.** Aurtan, Fundazioak Elizpeko kontzertuen denboraldia urriaren amaierara arte luzatzea erabaki du, aurreikusitako emanaldien kalitatea kon-tuan hartuta eta parte hartuko duten artistei kontsulta egin ondoren. Hotzari, urte sasoi honetako eragozpen nagusiari, aurre egiteko, mantak eskaini zaizkie ikus-entzuleei, ikuskizunaz modu erosoan goza dezaten. Ziur ez dela erabiltzen ditugun azken aldia!

Elkarren ondoan: Fundazioaren eta Aldundiko zerbitzu teknikoaren arteko lankidetzua

## V. Inprenta Zerbitzua

Triforiotik Berriak buletin hau, argitaratu diren dibulgazio-liburuxkak, Gabonetako zorion-argitalpenak, orri-markatzaileak, baita Santa Maria Katedrala Fundazioak egin dituen argitalpenetako batzuk ere, Arabako Foru Aldundiko Inprenta Zerbitzuan lan egiten duen taldeari esker gauzatu ahal izan dira. Alberto, Ramón, Lucia eta inprimategian lan egiten duten gainerako pertsona guztien lan onari esker, gure ideiak eta argitalpenak hainbat euskarritan inprimatu eta zabaldu ahal izan ditugu.

Elkarrekin egindako bide honetan gertatu diren pasadizo asko kontatu genitzake. Orain eta etorkizunean, ez dugu nahikoa esker-tuko planteatu diegun edozein aholku, zalantza edo premiatarako beti prest agertu diren profesional handi horiez osatutako taldea izatea.



## Ken Follett eta Gasteizekin duen idilioa

"La Armadura de la Luz" (Argiaren armadura) bere azken lanaren aurkezpena dela eta, idazle britainiarrak berriro aitortu du Gasteizko hiriarekin duen idilioa. "Sentimendu berezia dut hiriarekiko, interes handia piztu zitzaidan katedrala berritzen ari zirenean", esan du.

Bere eleberririk berrirako Gasteizko Gudua berriro erabili duen Follettek Katedralarekin duen harremana oroitu zuen "Un mundo sin fin" (Amaierarik gabeko mundua) lanaren sorkuntza-prozesuan. "Pixka bat lagundu nien, ez asko, baina monumentua berritzen lagundu nien", esan zuen Follettek hamarkada bat geroago. "Gero oso estatua polita egin zidaten", adierazi zuen barrezka.

## TVEko "Ahora o Nunca" saioak Santa Marian ospatu zuen Katedralen Eguna

Joan den urriaren 19an TVEko talde bat Santa Maria Katedralera hurbildu zen Katedralen Eguna zuzenean ospatzeko. Imanol Duran kazetariak Fundazioko arduradunekin hitz egin zuen nabe nagusiaren estalkian, gaur egun zaharberritze-lanak egiten ari diren lekuan, eta gogorarazi zuen dagoeneko 2 milioi pertsonak baino gehiagok bisitatu dituztela "denboraren joanean aurrera egitea eta mundu mailako erreferente bihurtzea lortu duen" eraikinaren obrak.



Joan den urrian Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko ikasleen ohiko bisita izan genuen. Mikel Laskurain irakasleak gidatuta, Irakaskuntzako eta Gizarte eta Kirol Animazioko Goi Mailako Gradu Teknikoko ikasleek abenturari ekin diote, lau egunez euskal geografia osoan zehar eramango dituen bizikleta ibilbidean, Katedralako Aterpetxean ezinbesteko geldialdia eginez. Haiekin elkarbizitzea oso atsegina da beti, eta maitasun berezia diegu. Hurrengora arte!



Jarrai gaitzakezu